



SOUNDPAINING, SOINUAREN BIDEZ SORMENA GARATZEKO TRESNA (1. aldia) /
SOUNDPAINING, UNA HERRAMIENTA PARA EL DESARROLLO DE LA CREATIVIDAD A TRAVÉS
DE MATERIAL SONORO (1ª edición)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2018/2019

ARLOA: Humanitateak

KREDITUAK: 2 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 90 euro

ARDURADUN AKADEMIKOA: Cristina Arriaga Sanz

AURKEZPENA

Soundpainting diziplina anitzeko keinu hizkuntza unibertsala da. Bere praktikak kontzentrazioa, ahalmen motorrak eta inprobisazioa garatzen laguntzen du. Bere oinarritzko premisetako bat akatsik ez dagoela da; beraz parte-hartzaileak libre sentitzea eta bere sormena garatzea baimentzen du. Ikastaro honen helburua, kolaborazio-giroak eraikiz eta musika-kultura sortzaile eta garaikideranzko sentikortasuna bultzatuz, hizkuntza hau era didaktikoan erabiltzen ikastea da. Egindako eskola-proiektuak aurkeztu eta aztertuko dira eta azkeneko performancea egingo da.

ZURE BILA GABILTZA

Soundpainting-a inprobisazioa baimentzen duen keinuen hizkuntza da; denbora errealean garatzen da, akatsik ez dago eta parte-hartzaile guztien ekarpenak integratzen dira. Edozeinek parte har dezake, bere musika maila ez da garrantzitsua. Ikastaro honen bidez, musika bat-batean egiten ikasi ahal izango duzu, kasu praktikoen bidez zure ikasleekin nola garatu ikasiko duzu eta kurtsu bukaeran, performancea egiteko aukera izango duzu.

IRTEERA PROFESIONALAK

Ikastaro honek soundpainting-jarduerak Lehen Hezkuntzako eskoletan praktikan jartzeko gaitasuna ematen du, ordu presentzialetan edo beretatik kanpo; diziplina



anitzeko zereginetan sormena garatzeko aukera ere ematen du. Helburua, inprobisazioa eta sormena, programazioetan, ohiko iharduera bezala sartzea da, ez esperientzia puntualetan bakarrik. Halaber, talde-sorrerari eta artearekin eta komunitatearekin harremanetan dauden talde desberdinekin esperientzia trukaketa laguntzen dioten erremintak eskainiko dira.

BALDINTZAK

Haur edo Lehen Hezkuntzako Graduduna izatea edo ikasten egotea edo Musika Goi Mailako edo Gradu Ertaina eginda izatea edo ikasten egotea.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2018/10/24-etik 2018/11/21-era

EMATEKO TOKIA: Bilboko Hezkuntza Fakultatea

HIZKUNTZA: Euskaraz eta gaztelaniaz.

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktikaren Saila

HELBIDEA: Sarriena z/g. 48940 Leioa (Bizkaia)

TELEFONOA: 94 601 75 49

POSTA ELEKTRONIKOA: cristina.arriaga@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.